

TOKIKO LEHEN JARDUKETA- PROTOKOLO KOORDINATUA, ATARRABIAN GENERO INDARKERIAREN AURKAKOA

1. Udal erabakia

Atarrabiako Udaleko Osoko Bilkurak, 2013ko urriaren 31n egin bileran, erabaki zuen Atarrabian emakumeen eta neskatikoen indarkeriaren aurka jarduteko tokiko lehen protokolo koordinatua onestea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurreko epean ez denez erreklamaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu, behin betikoz onetsirik gelditu da Atarrabian emakumeen eta neskatikoen indarkeriaren aurka jarduteko tokiko lehen protokolo koordinatua, eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Atarrabian, 2013ko urriaren 31n.-Alkatea, Pedro Gastearena Garcia

Bildurik:

Pedro Gastearena jauna, Atarrabiako Alkatetzaren ordezkaria.

Mercedes Sanchez andrea, Atarrabiako Berdintasun Batzordearen ordezkaria.

Pedro Zuñiga jauna, Atarrabiako Udaltzaingoaren burutzaren ordezkaria.

Gemma Senosiain andrea, Atarrabiako, Ezkabarteko eta Olaibarko Gizarte Zerbitzuen ordezkaria.

Rocio Litiago andrea, Atarrabiako Osasun Etxearen ordezkaria.

Fatima Moreira Frutos andrea, Atarrabiako emakumeen eta gizonen eta neskatikoen eta mutikoen arteko Aukera Berdintasunen Arloko ordezkaria.

Jose Vicente Urabayen jauna, Kultura Zerbitzuaren ordezkaria.

Jose Luis Servent jauna, Kirol Zerbitzuaren ordezkaria.

Joseba Amigorena jauna, Atarrabiako Gaztelekua Gazteria-zentroko ordezkaria.

ATARGI, PAZ DE ZIGANDA ETA PEDRO DE ATARRABIA IKASTETXEAK, EUREN ZUZENDARIEK ORDEZKATUAK.

ETA LORENZO GOICOA IKASTETXE PUBLIKOKO, PEDRO DE ATARRABIA INSTITUTUKO, IDOSKIA ATARGI IKASTETXE PUBLIKOKO AMA-AITEN ELKARTEAK, PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA AMA-AITAK, SAN ANDRES SCOUT TALDEA, ATARRABIako GAITARIEN TALDEA, TXIRIMIRI, PERTSONA ERRETIRATUEN ELKARTEA, SAN ANDRES ABESBATZA ETA ETXEBELTZA ELKARTEA, gure herrian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte-elkarte eta – taldeak ordezkatur.

Adierazi dute:

1. Emakumeen aurkako indarkeriak modurik larrienean urratzen ditu giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak. Norberaren errealizazio osoa galarazten die emakumeei, hazkunde ekonomikoa murrizten du eta garapena eragozten du.
2. Gizonen eta emakumeen arteko botere harremanetan dagoen desoreka erakusten du, eta desoreka hori gizarte demokratiko ororen garapenerako oztopo nabarmena izateaz gain, emakumeak eta neskatikoak baztertzeko tresna izan da.
3. Ugariak dira emakumeen aurkako indarkeria motak eta ugariak dira orobat indarkeria hori jasaten duten emakumeen esperientzia pertsonalak, faktore ugari baitaude tartean, hala nola jatorri etnikoa, gizarte maila, adina, sexu-orientazioa, desgaitasuna, nazionalitatea eta erlijioa.
4. Seme-alabak ditugu biktima ahantziak, emakumeen aurkako indarkeriaren lekuko diren aldetik. Indarkeria horren ondorio zuzenak eta zeharkakoak pairatzen dituzte eta jasan egin behar dituzte, halaber, botere-desberdintasuna eta amaren azpiratzea nagusi diren ingurunean bizitzeak dakartzan ondorio guztiak. Horregatik, neurri egokiak hartu eta baliabideak jarri behar dira haien eskubideak bermatzeko.
5. Emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeria gizarte patriarkaletako egiturazko fenomeno da, gizonek emakumeak azpira ditzaketela eta haietaz abusatu dezaketela justifikatzen duten balio eta arau soziokulturalak oinarri dituena. Nagusi den sistema patriarkalak normaltasunaren itxura eman dio indarkeriari eta hau ikusezin bihurtzen du, gizona emakumearen gainetik dagoela uste izan delako eta horrek bat egiten duela eginkizun desberdinen esleipenarekin.
6. Bereizkeria desagerraraztea da emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko modu bakarra. Indarkeriari aurrea hartzeko ezinbestekoak dira emakumeen giza eskubideak sustatzea eta babestea, berdintasun errearen eta eraginkorraren sustapena, eta halaber, emakumeen eta neskatikoen ahalduntzea sendotzea, prebentzioa lantzeko funtsezkoa dena.
7. Emakumearen aurkako indarkeriaren arazoari ez heltzeak ondorio larriak dakartzkie bai emakumeei bai seme-alabei baita esparru sozial, ekonomiko eta politikoei ere.

2. ARAUDIA ETA POLITIKA PUBLIKOAK GENERO INDARKERIAREN ARLOAN

Nazioartean, honako hauek ditugu emakumearen aurkako indarkeriaren kontra borrokatzeko tresna ezinbestekoak: Emakumearen aurkako bereizkeriari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (1979), Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa (1984), Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena (1993), Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma (1995) eta Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioaren Aukerako Protokoloa (1999). NBE-Emakumeak erakunde sortu berria gogotik ari da lanean emakumeen aurkako biolentziaren gaia aztertzen, erakundearen foku-arloetako bat baita.

Eurostaten arabera, Europan 700 - 900 emakume inguru hiltzen dira urtero indarkeria horren ondorioz. Honi beste arazo

batzuk gehitu behar zaizkio: norbere burua hiltzera bultzatu, neskatikoek eta emakumeek pairatzen duten indarkeriarekin lotura duten minusbaliotasunak eta gaixotasunak.

Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak aintzat hartu dute errealitate hori eta, hainbat testuren bitartez, gaiari garrantzi handiagoa eman diote garatu dituzten politiketan. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko Europako Parlamentuko Ebazpenak, 2008ko irailaren 3an onetsiak, honela dio: "emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragozten duen oztopo nagusietako bat da eta giza eskubideen urratze zabalduenetako bat, eta ez dauka muga geografiko, ekonomiko edo sozialik; kezka garria da, orobat, indarkeriaren biktima diren emakumeen kopurua...". Gero berriz dio "garrantzizkoa dela emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearren; estatu kideei eta Batzordeari eskatzen die arlo horretan batera jarduteko; eta Batzordea hertsatzen du emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko neurri berriak har ditzan".

Estatuko legediari dagokionez, honako hauek izan dira azken urteotan onetsi diren legerik garrantzitsuenak: 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, Hiritarren segurtasunari, etxeko indarkeriari eta atzeritarren gizarteratzeari buruzkoa; 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena; eta, azkenik, 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa, garrantzi handiko mugarrria izan dena. Diziplina anitzeko ikuspuntu batetik heltzen dio gaiari, hainbat alderdi hartzen baititu kontuan: hezkuntzakoak, sozialak, prebentziokoak, laguntzakoak eta ondoko arretari dagozkionak. Lege horrek kanpo utzi ditu emakumeek jasaten dituzten zenbait indarkeria mota, eta ez du berariaz lantzen indarkeria hori zuzenean zein zeharka jasaten duten seme-alaben beharren auzia. Gero, bestalde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 3/2007 Legea etorri da, martxoaren 22koa, baita berrikitan Kode Penalaren aldaketa ekarri duen ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoa.

Erakundeen arloan, berriz, Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza eta Emakumearen gaineko Indarkeriaren Estatuko Behatokia sortu dira, eta emakumearen gaineko indarkeriaren auzietarako epaitegiak, fiskaltza espezializatuak, ofiziozko txandak, etab. eratu dira.

Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoan (2008-2011), "Indarkeria" izenburua daraman hamargarren ardatzak honako helburu hauek aipatzen ditu, besteak beste: emakumeendako laguntza osoa hobetzea; genero indarkeriaren biktimak jasotzen duten babes polizial eta judiziala sendotzea; genero indarkeriako kasuetan esku hartzen duten profesionalen prestakuntza eta espezializazioa indartzea; erakundeen barneko eta erakundeen arteko koordinaziorako prozedurak sustatu eta sendotzea, genero indarkeriako kasuetan erantzuna eraginkorragoa izan dadin.

Nafarroan ere aipatu joera hori nagusitu da eta hainbat lege onetsi dira, honakoak, besteak beste: uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa, eta hura erregelamendu bidez garatzeko dekretua: 16/2007 Foru Dekretua, otsailaren 26koa; martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legea, 22/2002 Foru Legea aldatzen duena, eta abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako I. Plana (2006-2010) izenekoaren 9. arloak emakumeen aurkako indarkeriaz dihardu. Funtsezko hiru helburu azpimarratzen ditu: emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko neurriak ezartzea; emakumeen aurkako indarkeria egoerak hautemateko eta haietan laguntzeko eta esku hartzeko bitartekoak hobetzea eta indarkeriaren biktima diren emakumeak artatu eta babesteko baliabide eta zerbitzu nafarrak egokitzea.

Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematean eta aurreneurriak hartzean eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko Akordioa sinatu da berrikitan. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzen eta biktimak osoki artatzen laguntzeko beharrezkoak diren legezko jarduketan eta polizia, osasun zein gizarte arloko jarduketan euskarria da akordio hori, betiere, egun Familiaren eta Berdintasunaren Nafar Institutua deitzen den horretan eman ziren aldaketek medio (138/2011 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa eta 75/2012 Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa) indargabetzen ez den bitartean.

Atarrabiako udalerritari dagokionez, 2012. urtean, gatazkaren baten baitan zeuden 73 emakumeren kasuak artatu ziren, hauetarik 12 genero-indarkeriakoak izan ziren. Bitan tratatu txarrak jasaten dituztenentzako Aterpetxera bidaliak izan ziren, eta 9 urruntze-agindu eman ziren. 8 emakumek arreta psikologikoa behar izan zuten eta laguntza juridikoari dagokionez 97 kasu jaso ziren.

Halako datuak zorrotz eta tentuz aztertu eta balioetsi behar dira beti, aurkezturiko salaketan kopuruak edo eraildakoen kopuruak erakusten dutena baino larriagoa baita arazoa, batez ere kontuan hartuz ezen emakume anitzek ez dutela sekula salaketarik jartzen eta beste batzuek urte asko behar dituztela bikotekideak salatzen. Bestetik, kontuan hartu beharra dago badaudela emakumearen aurkako bestelako indarkeria mota batzuk, legerian jasota egon ez arren emakumearen aurkako indarkeria direnak, halere.

Bestalde, emakume batzuen babesgabetasuna are handiagoa da, era askotakoa delako pairatzen duten bereizkeria. Halaxe gertatzen zaie, adibidez, biktima atzerritarrei: gizarte, kultura eta hizkuntza alorreko oztopoengatik, herrialdean sare sozialik ez izateagatik eta duten administrazio egoerarengatik, are nekezago egiten zaie gisa horretako salaketak tramitatzea.

Gauza bera gertatzen da aniztasun funtzionala duten emakumeekin (minusbaliotasuna). Hauek pairatzen duten bereizkeria bikoitza edota hirukoitzaren ondorioz, jasaten duten indarkeria (are zaintzaileengandik ere) ikusezin bihurtzen da. Hori dela eta, salaketak

paratzeko beldur izaten dira, eta areago, ez dute salaketak paratzeko baliabide egokirik ere.

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko II. Plana onetsi da eta emakumeen aurkako indarkeria zeharkako Alorra dela finkatu da bertan. Planak Udaleko zerbitzuen artean eta erakundeen artean Udalaren koordinazio sendoa ahalbidetuko duten egiturak sortu beharra dagoela azpimarratzen du, horrela bultzatu eta garatu ahal izanen baitira biktime diren emakumeei laguntzeko neurriak, prebentzio programak eta informazio eta sentsibilizazio kanpaina egokiak. Eta nabarmendu egiten du, halaber, beharrezkoa dela prestakuntza ekintzak antolatzea, udal egitura osatzen duten pertsona guztiek sakonago ezagutu ahal izan ditzaten gizartearen izurri hori eta berari ekiteko estrategiak.

Zeharkako alor hori egituratzen duen helburu funtsezkoa da administrazioaren koordinazioa indartu eta hobetzea emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan. Horren ondorioz, Aurrabiako Udala honako hiru ekintza hauek lantzen ari da Berdintasunerako Zerbitzuaren bitartez:

1. **Prestakuntza berezitua**, emakumeen eta neskatikoen aurka ematen den indarkeriari aurre egitearen inguruan, Aurrabiako udal esparruan esku hartzen duten zerbitzuentzat.
2. **Tokiko jarduketa-protokolo koordinatua egitea** emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko.
3. **Lantalde koordinatu bat sortzea (Mahai Teknikoa)**, emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeria kasuetan lan egiten eta esku hartzen duten tokiko zerbitzuek osatua, protokoloa aplikatu dezan eta hobekuntzarako neurriak proposa ditzan. Mahaia osatuko dutenak: arlo hauetako langile berezituak (Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Osasun Etxea) eta letratu berezitua. Koordinazio lanak Berdintasun Agentek egingen ditu.

Atarrabiako Udala harreman eredu berri bat eraikitzearen alde ari da lanean, eredu zuzenago eta berdintasunean oinarrituago baten alde, balio patriarkalak eta matxistak behin betikoz baztertze aldera.

Horiek horrela, parte-hartzaileek, duten ordezkaritza baliatuz.

Erabaki dute:

Lehenbizikoa

Erabaki honen helburua da udal koordinazioa hobetzea hala emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan nola biktimak, emakumeak zein adingabeak edota euren kargura dituzten menpekoak, lagundu, artatu eta babesteko jarduketetan.

Bigarrena

Jarduketak Akordio honetara egokitzeko eta indarkeria mota honen inguruan balio berriak bilatzeko ekintzak abiarazteko konpromisoa hartu dute, bereizkeria eza eta tratu berdintasuna sustatuz, botere-egiturak eta emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeria eta bereizkeria ahalbidetzen duten pribilegioak zalantzan jarriz. Indarkeria jasaten duten emakumeen eskubideak babesteko konpromisoa hartzen dute, indarkeria hori ezabatzeko borrokan ageriko burua izanik, hala Atarrabiako udalerrian nola beste erakundeekin batera gauzatzen diren ekintzetan.

Hirugarrena

1/2004 lege Organikoan aipatutakoez gain, honako hauek ere jo dira biktimatzat: ezein kalte fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomiko eragiten zaien guztiak, kalte horiekin mehatxua jasaten dutenak eta askatasuna hertsatzen edo modu arbitrarioan kentzen zaien guztiak barne, ingurunea familiarra, lanekoa edo soziala izanik eta publikoan nahiz pribatuan gertatu, baita egun indarra duen Kode Penalean delitu edo falta gisa tipifikaturiko guztiak pairatzen dituztenak ere. Gisa horretan **Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legean** ezarritakoaz haratago jo da eta berretsi egin da Nafarroako Komunitateko Erakundearen arteko Akordioa (2010).

Laugarrena

Erakunde sinatzaileek protokolo hau baliarazi eta aplikatzeko konpromisoa hartu dute, bertako printzipio gidariei jarraikiz eta bertan azaldutako eskumenei lotuz.

Bosgarrena

Protokoloa eta neurriak egiazki aplikatzen laguntzeko, ukituriko arloetako profesionalen artean edukia zabaltzeko ekimenak eta prestakuntza ekintzak burutuko dira. Era berean, behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak bereiziko dituzte, protokoloa egiazki abiarazi, ezarri eta jarraitzen dela bermatzeko behar direnak alegia.

Seigarrena

Protokoloa indarrean dagoen bitartean jarraipen eta ebaluazio bilerak izanen dira, koordinazio tresna guztiak behar bezala dabilzala egiaztatze aldera. Horretarako **Mahai Teknikoa** osatuko da:

Mahai Teknikoak segidako eginkizunak izanen ditu:

1. **Azterketa eta diagnostikoa** egitea, Protokoloaren funtzionamenduari buruz
2. Protokoloan zehaztutako jarraibideak ez betetzeagatik gertatzen diren **gorabehera garrantzitsuenen** eta jasotzen diren kexen **laburpena** egitea. Okerrak zuzentzeko protokoloa eta neurriak proposatzea.
3. **Bateratze-lana egitea**: artatutako kasu kopurua, emandako erantzuna, biktimen egungo egoera, urruntze-aginduen nondik norakoak.
4. **Protokoloaren lau urtekako jarraipena eta ebaluazioa** egitea. Testu eguneratu hori berrikusi eta idazteko, funtzionamenduaren diagnostikoari eta proposaturiko hobekuntzei begiratuko zaie.

Honako hauek osatuko dute **Mahai Teknikoa**:

- Berdintasun Zerbitzuaren ordezkaria (koordinazioa).
- Udaltzaingoaren ordezkaria.
- Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen ordezkaria.
- Osasun Etxeko ordezkaria.
- Emakumeari Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuko ordezkaria.

Mahai Teknikoko burua Atarrabiako Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren ordezkaria izanen da eta aktak idatzi, gai zerrenda prestatu eta deialdiak egin eta abarrez arduratuko da.

Mahaian elkarte edo erakundeetako bestelako pertsona batzuek edo arloan adituak direnek ere parte hartu ahalko dute, norberak edo Mahaiak alde aurretik eskaturik, Akordioaren xedeak ukituriko pertsonen ordezkari gisa.

Mahaiak **gutxienez ere hiru bilkura arrunt eginen ditu urtean**, eta bilkura bereziak eginen ditu Mahaiko koordinatzaileak edo 3 kidek hala eskatzen dutenean.

Bertaratutako kideen gehiengo soila aski izanen da erabakiak hartzeko. Berdinketa gertatuz gero, Mahaiko koordinatzaileak izanen du erabakitze ahalmena.

Zortzigarrena

Atarrabiako Udala, genero-indarkeriaren gertakariaren aurrean, udal koordinazioa hobetzeko abiaburu gisa, udalez gaindiko erakundeekin batera jarduketa koordinatuak egitearen aldekoa da etorkizunean.

Bederatzigarrena

Protokolo honek indarra hartuko du sinatzen den egunean bertan eta lau urtez egonen da indarrean eta isilean luzatuko da, alderdiren batek espresuki uko egiten ez dion bitartean.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakustearren, Protokolo hau sinatzen dute lehenago adierazitako tokian eta egunean.

A. Protokoloa

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lanean diharduten eragile nagusiek sinatu eta adostu dute protokoloa. Nolanahi ere, beste departamentu eta entitate batzuek ere aplikatu eta ezagutu beharko lukete, baldin eta, gizaratean dituzten lekua eta betekizunak direla-eta, halako une jakin batean eginkizun erabakigarria bete badezakete proposatzen diren neurriak aplikatzerakoan.

B. Zein dira printzipio gidariak?

ZEHARKAKOTASUN PRINTZIPIOA

Atarrabian emakumeen eta neskatikoen aurka ematen den indarkeria ezabatzearen alde lanean jarduteko helburua ez da Gizarte Zerbitzuetako emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunen arloaren ardura bakarrik; aitzitik, udalaren arlo eta zerbitzu guztien egitekoa da. Horretarako, bereizkeria eza landuko da eta genero ikuspuntua txertatuko da udalerrian egiten diren jarduketan guztietan.

Genero indarkeria pairatzen dutenei eta hauen seme-alabei zerbitzu horiek ematen dituztenak aukera-, tratu- eta baliabide-berdintasun kontuetan, eta halaber, genero-indarkeriaren prebentzioan prestatuak eta sentsibilizatuak daudela bermatuko da. Halaber, prestakuntza hau etengabea eta eguneratua izan dadin saiaturako gara.

PREBENTZIOAREN ETA AHALDUNTZEAREN PRINTZIPIOA

Atarrabiako Udaletik emakumeen eta neskatikoen ahalduntze pertsonala eta taldekakoa bultzatuko da, genero-indarkeriari aurre egiteko bitartekoetako bat bezala hartuta. Emakumeen eta neskatikoen eskubideen inguruan kontzientziatzeko eta hauek ezagutzeko ekintzak bultzatuko dira. Gainera, euren bizitzaldia eta Atarrabiakoak izaki, emakumeen ikuspegi positiboa eta ahaldundua ematen lagundu duten erreferente

femeninoak sustatuko dira ahalduntzea lortzen laguntzeko; hala nola, kirolariak, artistak, politikariak, profesionalak, boluntarioak, kooperanteak, etab.

Halaber, hezkidetzak ekintzak abiatuko dira, adin goiztiarretan eta gazte eta nerabeen artean, mota honetako indarkeriaren prebentzioa helburu dutenak.

KOORDINAZIOAREN ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN PRINTZIPIOA

Jakinagatik genero indarkeriaren aurkako udal-jarduketa Protokolo honen koordinazio lana emakumeen eta gizonen arteko Aukera-berdintasunen arloari dagokiola, esan beharra dago protokolo honetan parte hartzen duten gainerako eragileak ere erantzunkideak direla hau abiarazteko orduan. Hortaz, protokoloaren betetze maila zaintzeko eta genero indarkeriaren gertakariaren aurrean gainerako eragileek agerian utzitako beharrei erantzuteko orduan, Protokolo honetan elkarrekin ari diren pertsonen artean harreman erantzunkideak ezarriko dira.

ANIZTASUN FUNTZIONALAREN PRINTZIPIOA

Printzipio honi jarraiki, beharrezko baliabide guztiak bideratuko genero indarkeriari aurre egiteko udal-jarduketa Protokoloa aniztasun funtzionala duten emakumeengana eta neskaticoengana ere iritsi dadin. Horretarako, Protokoloa bera eta bertatik eratorritako baliabide eta informazio guztiak, aniztasun funtzionala duten pertsonen egokituko zaizkie. Gainera, Protokolo honen garapenean eta jarraipenean arreta berezia paratuko da pertsona hauei zuzendutako ekintza berariazkoak abiarazteko orduan, honen ondotik datorren Ekintza Positiboaren Printzipioarekin adostasunean.

EKINTZA POSITIBOAREN PRINTZIPIOA

Atarrabian genero-indarkeria pairatzen duten biktimek arlo honetan ongi prestatutako profesionalak eskaintako norberari egokitutako laguntza espezializatua behar dute. Protokolo honetan, prebentzioaren, arretaren, jarduketaren eta jarraipenaren inguruan, eragile, zentro edota zerbitzu bakoitzari dagozkion prozesuak definitu dira. Hala ere, eskumenen banaketa halakoa izanik ere, arreta prozesu osoari dagozkion erantzukizunak hartu

behar dira; hortaz, beharrezkoa edo premiazkoa izanez gero, eragile guztiek dute ekiteko ahalmena, eskumen zehatza esleitua duen profesionalak esku hartu ahal duen arte. Honen helburua da, Atarrabian genero-indarkeria pairatzen duena informaziorik edota arretarik gabe ez geratzea.

Halaber, udal arlo guztiek ekintza positiboko neurriak (kirol/kultur jardueretarako sarbidea, jantokirako bekak, Jubiloteka/Berdintekarako sarbidea, eta abar) abiatu beharko dituzte genero-indarkeria pairatzen duten biktimak eta euren kargura dituzten adinez nagusiak edota adinez txikiak gizartean zein lan-munduan hobeki integra daitezen..

ARRETA OSOAREN PRINTZIPIOA

Emakumeek eta neskatikoez indarkeria mota ugari jasaten dituzte beren bizitzaldi osoan zehar. Udal politika guztiek honako hau izan behar dute jomuga: indarkeria mota ezberdin hauek (sexu-indarkeria, fisikoa, psikikoa, ekonomikoa, etab.) jasaten duten emakumeek eta adingabeek arreta integrala behar dute udalaren zerbitzu eta alor guztietatik.

Biktimen egoera fisikoari zein psikologikoari begiratu beharko zaio beti, ulermena eta enpatia erabiliz haiek lagundu eta aholku ematen saiatzeko. Isilpeko eta norberari egokitutako tratamendua nagusituko da beti.

Printzipio honek berretsi egiten du biktima udal eskumen eta alor guztiak erabiliz laguntzea dela garrantzizkoena, eta xede hori gailendu behar dela beti, eragileen arteko administrazio edo koordinazio afera guztien gainera. Biktima ezin da inoiz laguntzarik gabe gelditu berari ez dagozkion kontuak direla eta.

Biktimari arreta osoa ematearen printzipioak kontuan hartu behar du ezen biktimek, emakumea izateagatik jasaten duten bereizkeriaz gain, bereizkeria bikoitzak, hirukoitzak edota askotarikoak ere jasan ditzaketela beraien sexu-orientazioa, arraza, adina eta abarrak direla eta, eta horrek are ahulago bihurtzen dituela, eta, horrenbestez, haiek artatu eta laguntzeko behar diren neurri zehatzak eta bitartekoak erabili beharko direla, euren bizi-errealitatera egokituak. Betiere, birbiktimizazioa edota biktimizazio sekundarioa ekiditen saiatuko gara. Genero-indarkeriaren biktimak adingabeak direnean, haien interes behinena zaindu beharko da beti.

C. ATARRABIAN EMAKUMEEK ETA NESKATIKOEK JASATEN DUTEN INDARKERIAREN AURKAKO BORROKAN LANEAN DIHARDUTEN GIZARTE ERAGILEAK, UDAL LANGILEAK ETA ERAKUNDEAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ETA NESKATIKOEN ETA MUTIKOEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNEN ARLOA.

Berdintasun Arloaren eginkizun nagusia da Atarrabiako udalerriko gizon eta emakumeen neskatiko eta mutikoen artean berdintasun egiazkoa eta eraginkorra sustatzea, baita udal alor, zerbitzu eta jarduera guztietan genero ikuspegia txertatzea ere. Gisa horretan, berretsi egiten da Berdintasun Arloa ardatz nagusia dela Aukera Berdintasunen eta Genero Indarkeria Prebenitzeko udal politika guztietan, bai barnekoetan bai Atarrabiako herritarrei dagozkienetan.

Atarrabiako Udaleko Berdintasun Arloak koordinatzen ditu gainerako eragileek indarkeriaren biktimak artatzeko bideratzen dituzten neurriak. Horrenbestez, protokoloaren funtzionamendu egokia guztien ardura bada ere, Berdintasunerako Zerbitzua arduratzen da koordinazioaz.

Hauk dira udalaren Berdintasun Arloaren **eginkizunak**:

- Atarrabiako emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udal protokoloaren Koordinazio Teknikorako Mahaia koordinazio orokorra. Mahaia biltzeko deiak egitea, gai zerrenda prestatzea, hobetze proposamenak jasotzea eta gainerako eragileei erantzukizunak esleitzea..
- Mahai Teknikoaren eta arlo politikoaren arteko bitartekaritza lana egitea.
- Biktinek jasotzen duten arretaren jarraipen osoa egitea, Atarrabiako lehen mailako eta bigarren mailako eragileen arteko koordinazioa bideratuz.
- Prozesu eragileetan zer hobetu daitekeen hautematea, eta protokoloa egiazki aplikatzean ikusten diren gabeziak zuzentzea.
- Protokoloa behar bezala aplikatzeko prestakuntza neurri orokorrak garatu eta abiaraztea.
- Atarrabian emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako neurriak aplikatzerakoan eragina izan dezaketen aldaketa guztiak identifikatzea: demografikoak, sozialak eta araudiari zein erakundeei dagozkienak.

- Protokoloaren lau urteko ebaluazio txostena prestatzea.

UDALTZAINGOA

Udaltzaingoaren egitekoa lotuta dago biktimen eta hauen seme-alaben segurtasuna zaintzearekin eta erasotzailearen aurrean haien osotasun pertsonala eta babesa bermatzeko neurriak abian jarri eta neurri horien jarraipena egitearekin.

Orokorrean, Hauek dira bere egitekoak:

- Aurreneurriak hartzeko jarduketak egitea, indarkeriazko beste egintza batzuk gerta ez daitezen; horretarako, poliziak arriskua egokiro baloratuko du. Indarkeriazko egintza gerta daitekeen lekura joatea eta zainketa lanak egitea.
- Salaketa egiten denetik aurrera, biktimak babestea eta erabakitako neurri judizialak betetzen diren kontrolatzea.
- Egiaztatzeko lana bermatzea. Atestatu ahalik eta osoenak idatziko dira, justiziaren alorreko profesionaleri lanean laguntzearen.

Honako hauek dira Atarrabiako Udaltzaingoak egin beharreko lan zehatzak:

1. Indarkeriaren ondoriozko larrialdia gertatzen denean

- a) Etxebizitzara bertaratzea, herritar batek, biktimak berak edo familiakoren batek abisua emanez gero.
- b) Lesioak izanez gero, biktimari Osasun Etxera joaten lagundu. Lesioak azaltzen dituen idazkia salaketari edota Udaltzaingoaren esku-hartze txostenari erantsiko zaio.
- c) Biktimak jasan berri badu eraso fisiko eta/edo sexuala, berehala laguntzea ospitale hurbileneko larrialdi zerbitzura. Eraso sexualak egon badira, oso garrantzitsua da biktima ez dutzatzea eta arropa ez aldatzea. Gainera, ezin du ezer jan edo edan, eraso sexuala ahoaren bidezkoa izan bada. Helburua da behar diren probak eskuratzea, erasotzailea epailearen esku uzteko.

2. Salaketa jasotzea.

- a) Biktima Foruzaingoaren edota Laguntza Brigadaren egoitzara eraman beharko dugu,

salatzaileak, hala nahi badu, deklaratu dezan. Hala, aholkularitza juridiko doakoaren zerbitzua eskainiko zaio biktimari, Emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuaren etengabeko zaintzako zerbitzuaren bidez; eta aholkularitza psikologiko doakoaren zerbitzua, Justiziako Gizarte Zerbitzuak egiten baitu lan hori.

3. **Biktimarendako zerbitzua.**

- a) Beharrezkoa bada edota biktimak edo esku hartu duten beste polizia talderen batek eskatzen bada, hari eta haren ardurapeko seme-alabei lagundu egingen zaie beste etxe batera aldi baterako aldatzeko prozesuan.

4. Gizarte zerbitzuen **informazioa eta haietara bideratzea.**

- a) Eskura dituen baliabideen eta laguntza zerbitzuen berri emanen zaio biktimari: Atarrabiako Gizarte Zerbitzuak, osasunekoak, enpleguak eta abar.

5. **Txosten garrantzizkoak igortzea**, babesteko agindua eskuratu denetik, Emakumearen gaineko Indarkeriaren Auzietarako Epaitegiari, kasuaren inguruan gertakari gehiago direnean.

6. Poliziak **arriskua baloratzea** eta babesteko neurri judizialak kontrolatzea..

- a) Poliziak kasu bakoitzean arriskua baloratzea, larrialdi berezia duten kasuetan..
- b) Aztertzea ebazpen judizialaren edukia eta ebazpena benetan betetzea lortzea dakarten neurriak (espazioa eta denbora, babesteko aginduaren urraketa).
- c) Delako arrisku egoerarako egokiak diren babes neurriak hartzea..
- d) Epaitegietara joatea egindako jarduketan berri ematera..
- e) Kasuen jarraipen eta kontrol txostenak egitea..

Gainera, Atarrabiako Udaltzaingoaren kideek genero-indarkeriaren arloan prestakuntza berezitua jasoko dute, betiere duten lan kargarekin eta ordutegiarekin adostu ahal bada.

EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO UDAL ZERBITZUA

Atarrabiako Udalak emakumeei laguntzeko zerbitzu juridiko doakoa eskaintzen du. Zerbitzua ostegun oro ematen da goizez, 10:00etatik 13:00ak bitarte. Aurrez, zita hartu behar da –telefonoz ala bertara joanda- Gizarte Zerbitzuetako administrariarekin egonda, 08:00etatik 14:00ak bitarte.

Zerbitzu honetan, prebentzioaren alorretik, segidako ekimenak garatzen dira:

- Hala eskatzen duten Atarrabiako emakumeei aholkularitza juridiko banan-banakoa eman, edozein esparrutan jasaten duten diskriminazioa dela medio; hala nola, gizartean, lanean, arlo penalean eta kartzelakoan edota zibilean, administrazioan, familia-zuzenbidean, adinez txikien arloan, atzeritartasun arloan, etab. Legalki dituzten neurrien eta eskubideen berri emanen zaie.
- Genero-indarkeria jasaten edota hau pairatzeko arriskuan dauden biktima orori aholkularitza juridiko banan-banakoa eman. Arreta berezia eskainiko zaie, pertsona hauen menpe egonik, adinaren edota aniztasun funtzionalaren kausaz (minusbaliotasuna) menpekotasun egoeran daudenei, genero-indarkeria egoera edozein delarik ere; hala nola, fisikoa, psikikoa, ekonomikoa, esplotazio sexuala, indarkeria lanean, instituzioen mailan eta eman daitezkeen bestelako edozeinetan.
- Genero arrazoiarengatik eman daitezkeen bazterkeria egoerei eta genero-indarkeria egoerei aurrea hartu, informazio zehatza eta orientazio juridikoa eman ez antzematen ahal diren egoera edota kasuetan, betiere espresuki eskatzen bada.

Aholkularitza juridikoaren edukia, arreta zuzenekoari dagokionez, ondoan esaten den moduan eskainiko da:

- Arreta pertsonalizatua, zerbitzuko emakume erabiltzaileen beharrei egokitua.
- Informazioa jasotzea eta gaien planteamendua egitea.
- Erantsiko den dokumentazioaren analisia.
- Beharrezko dokumentazioa eskatzea, emakume erabiltzaileekiko beste hitzordu batean berrikusi beharreko gai zehatza aztertu ahal izateko.
- Planteatutako gaiak aztertu eta baloratu.

- Elkarrizketa gaiekin zerikusia duten pertsonekin, kasuak egoki konpontzeko beharrezkoa balitz.
- Orientazio juridikoa eta esku-hartze balizko bideak.
- Hala eskatzen duten kasuetan Atarrabiako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoetara igorriko dira, euren balorazioa egin ondoren emakume erabiltzaileak Caritasera, Aterpe Etxera, Bitartekotza eta Familia-orientazio zerbitzura, laguntzen eskatzera, Aukera Berdintasunen Arlora, GKEra, eta abarrera igor ditzaten.
- Zuzeneko igortzea, dagokion zerbitzu publikoetara edota GKEra, egindako kontsulta kontuan hartu ondoren: Udaltzaingoa, ofizioko txanda, Emakumeari Laguntzeko Zerbitzua –ELZ-, Orientazio juridiko-penitentziarioaren Zerbitzua, ANAFE, SOS Arrazakeria edota planteatzen den arazoa konpon dezaketen beste batzuk.
- Informazioa eman, doako justizia eskatzearen onurei buruz.
- Ebaluazioaren planteamendua, txostena erantsita, hau beharrezkoa balitz, eta kasu bakoitzaren jarraipena eginez, Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoaren bitartez.

OSASUN ETXEKO ZERBITZUAK

Haien jardunaren izaera dela eta, artatzen dituzten emakumeetako batzuk indarkeriazko egoera jasaten ari direla antzeman dezakete kasu askotan. Eta funtsezkoak dira, Protokolo honetan, azkar antzematea eta prebentzioa, baita abordatzea eta genero indarkeria pairatu duten biktimek eta hauen seme-alabek osasuna berreskuratzea ere. Gure ustea da ere osasun arloko langileek prestakuntza espezializatua jaso behar dutela etengabe.

Gainera, egiten diren mediku txostenak delituaren froga dira epaitegian, eta, hortaz, txosten horiek ahalik eta zehatzenak izan beharko dute.

Egiten dituzten jarduketetan arau honetan xedatua beteko dute: Emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematean eta aurreneurriak hartzean eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko Akordioa eta genero indarkeriaren aurrean izan beharreko osasun jarduna erakusten duten protokolo komun guztiak.

Osasun zerbitzuak behartuta daude lesioen txostena aurkeztera eta biktimak eta hauen seme-alabak, hauek ere eragina pairatzen badute, jasaten ari diren indarkeriazko egoera agerian jartzera.

Elkarrizketa klinikoak eginen dira konfiantzazko giro egoki batean. Ahal delarik, biktimen osasun azterketa osasun langile emakumeek eginen dute leku pribatuan.

Osasun zerbitzuak, euren lana burutzerakoan, hainbat egoerarekin topatzen ahal dira.

a) Indarkeriaren arrasto arinak, oinarri sendoko edo ez hain sendoko susmoa sortzen dutenak, nahiz eta biktimek ukatu.

Egoera honen aurrean, kasua antzeman duen osasun arloko profesionalak (medikua, erizaina, gizarte langilea...) kasuaren jarraipena eginen du, Osasun Etxeko Gizarte Laneko Unitatearekin (Gizarte Langilea) koordinatuta esku-hartze profesional egokiena planifikatzeko.

b) Indarkeriaren arrasto larriak, gertatutakoa erakusten dutenak.

Biktimak ez baditu gertakariak salatu nahi eta ez badu babesteko agindua eskatu nahi, eskueran dituen babes mekanismoen berri emanen zaio, baita azaldu ere profesionalen eginbeharra dela Epaitegiari gertakarien berri ematea.

Biktimak salaketa egin nahi badu, Osasun Zerbitzuek lesioen txostena eginen dute, Atarrabiako Udaltzaingora eramanen dute, halakorik behar izanez gero; eta Osasun Etxeko Gizarte Langileak, biktimaren baimenarekin, Gizarte Zerbitzuei gertatutakoaren berri emanen die, babesneurri egokiak hartu ahal izateko.

Kasu bietan, Osasun Etxeko gizarte langileak biktimak eskura dituen baliabide juridikoen zein gizarte-baliabideen berri emanen dio. Halaber, Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoarekin koordinatzearen egokitasunaz ohartaraziko du.

Biktimaren erreferentziazko profesionalak (Osasun Etxeko medikua, erizaina, gizarte langilea) kasuaren jarraipena egiteko eskaintza eginen dute (entzute aktiboa, laguntza emozionala, erabakiak hartzeko laguntza..., etab.)

Kasu bietan, tratu txarrez gain, aldi berean gerta ziratekeen bestelako gizarte-arazoren balorazioa eginen da.

Eraso sexuala izanez gero, ospitale hurbilenera igorriko da, baldin eta aurreko 72 orduetan gertatu bada. 72 orduak igaro badira, laguntza emanen zaio eta lesioen txostena beteko. Txosten hori biktimari irakurri eta kopia bat emanen zaio hari. Gero, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Auzietarako Epaitegira edo Guardiako Epaitegira igorriko da.

Modu batera edota bestera genero indarkeria ematen den kasu guztietan Atarrabiako Osasun Etxeko Gizarte Laneko Unitatean bizi-arriskuaren gaineko balorazioa eginen da. Halaber, laguntza eskainiko da erabakiak hartzeko guneetan eta laguntza emozionala ere emanen da, zuzeneko arretan zein kasuaren jarraipen fasean ere. Hau guztia, biktimaren eta bere seme-alaben normalizazio sozio-sanitariora bideratua.

Gainera, Atarrabiako Osasun Etxeko Gizarte Laneko Unitateak konpromisoa hartzen du genero indarkeriarekin zerikusia duten Osasun Publikoko erakundeetatik, Estatu zein Foru Erkidego mailakoak, etorritako **prebentzioaren arloko informazio foileto guztiak zabaltzeko,**

EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA. UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

1/2004 Lege Organikoaren 19. artikuluan, gizarte laguntza integrala izateko eskubidea bermatzen zaie genero indarkeriaren biktima izandako emakumeei. Gehienetan, Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoak dira biktimak eta hauen seme-alabak artatzeko lehen tokia. Gizarte-arreta eta –laguntza lehentasunezkoa eta berariazkoa izanen da, biktimek, gainera, diskriminazio mota ezberdinen metaketa pairatzen badute. Halaber, beharreko egokitzapenak egingen dira, aniztasun funtzionala ere duten emakume biktimak arreta izan dezaten.

Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoetatik eskaintzen diren baliabideak:

BABES NEURRIAK

Emakumeak eraso fisikoa jasan eta beharrezkoa badu Osasun Etxera edota, kasua bada, Larrialdietara lagunduko zaio, lesioen txostena egin diezaioten, salaketan erantsi ahal izateko. Informazioa emanen zaio edozein polizia egoitzatan (Udaltzaingoa, Foruzaingoa, Guardia Zibila, etab) eta Epaitegian salaketa non eta nola egin. Egoitza horietako edozeinetarako sarbidea erraztuko zaio, bereziki Udaltzaingora. Hauekin harremanetan jartzeko sakelako telefonoa erraztuko zaio.

Larrialdietarako Etxebizitzaren eta Aterpetxearen funtzionamenduari buruzko informazioa emamen zaio. Etxe honetan geratu ahalko da bere seme-alabekin; bertara sartzea Poliziaren laguntzaz baino ezin da egin.

Lege-aholkuak jasotzeko Udalaren Laguntza Juridikoko Aholkularitza zerbitzura lagunduko zaio, eta hala behar badu, Abokatuen Elkargoko Emakumeari Arreta emateko Zerbitzura.

Atempro Zerbitzuari buruzko informazioa emanen zaio (Estatu mailan funtzionatzen duen Arretarako eta Babeserako Telefono Zerbitzua).

Aukera Berdintasunen Arloari honen berri emanen zaio kasu ezagut dezan eta era koordinatuan biktima artatzeko neurriak har daitezen.

GIZARTE LAGUNTZAK

Gizarte laguntzen; hau da, Errenta Oinarrizkoaren, Laguntza Apartekoaren (premia-premiazko altzariak, etxebizitzarako laguntza, etab.) berri emanen da, eta hala badagokio, hauek bideratu egingen dira.

Babes Ofizialeko Etxebizitzari (alokairuan edota erosteko) buruzko informazioa emanen da. Genero-indarkeriaren Biktimaren Aitorpena bideratuko da, honek babes ofizialeko etxebizitza lortzeko, eta kasua bada, etxebizitza aurkitzeko laguntza pertsonalizatua eskaintzen duen EAGTra heltzeko bidea erraztuko baitu.

Premia ekonomikoa larria bada Atarrabiako Caritasera edota Iruñean dagoen Nafarroako Egoitza Nagusira bideratuko da biktima, laguntza ekonomiko hori eskuratu ahal dezan. Halaber, arazo hauek lantzen dituzten pertsona immigranteen elkarteekin elkarlana bilatuko da. .

LAN-ORIENTABIDEA

Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoan Lan-orientabidearen Programa eskaintzen da Hala behar izanez gero bideratu egingo da informazioa eta aholkua jaso dezan. Halaber, EISOL zerbitzura bideratu ahalko da; hemen lana aurkitzeko laguntza pertsonalizatua eskaintzen da.

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Udaleko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoan zerbitzu hau eskaintzen ez denez, hala behar izanez gero, Osasun Mentaleko Zentrora, Delituen Biktimak Artatzeko zerbitzura (Justiziako Zuzendaritza Nagusia) edota PSIMAE edota BIDARE bezalako beste erakunde batzuetara bideratuko da biktima..

GIZARTERATZE NEURRIAK

Atarrabiako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkotik bideratuko da 12 urtez behitiko haurrak eta beren ama, hau biktima bada, udan igerilekuetara doan sar daitezten. Halaber, doako plazak izanen ditu Jubiloteka zerbitzuan, bere kargura mendeko pertsonak baditu, Berdinteka zerbitzuan, eta 12 urte arteko bere seme-alabentzako genero ikuspegia izanen duen Ludotekan ere. Halaber, udako hiri-kanpaldietan ere plaza doakoak izanen ditu. Jantokirako bekak ere eskainiko zaizkio, baina kasu honetan eta indarrean dagoen baremoari jarraiki, irizpide ekonomiko batzuk bete beharko ditu nahitaez.

Prozesu honetan guztian zehar, gizarte-langileak biktimaren eta honen seme-alaben beharrei eta egoerari egokitutako laguntza eta konpainia pertsonalizatua eskainiko zaio. Kasuari egin beharreko jarraipenak behar den denboran luzatuko da biktimaren eta bere kargura dituen adinekoen edota adinez txikien integrazio sozio-laborala erabatekoa ematen den arte.

GAZTELEKUA

Atarrabiako Gaztelekuak zuzenean dihardu lanean herriko gazteekin. Indarkeria pairatzen duten haurrak eta gazteak ez dira orain arte berdintasun politika publikoetako agendetan agertu.

Neskatikoek, mutikoek eta gazteek euren familiako beste pertsona batzuekiko duten mendekotasunaren kausaz, askotan, pairatzen duten indarkeria oharkabean igarotzen da eta gizarteko pertsona gainerakoentzat ikusezin gertatzen da.

Gaztelekuak egiteko hauek izanen ditu:

- **Indarkeria kasuren baten berri izanen balu**, biktimarekin hitz egin eta Atarrabiako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoetara igorriko luke. Biktimak honi uko eginen balio, diren baliabideen eta zerbitzuen berri emanen litzaioke. Berdintasun Arloari eta Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen kasuaren berri emanen die beti eta kasuaren jarraipena ere eginen du, bere lanak dituen eskumenetatik, betiere Gaztelekuaren beraren barnean.
- Genero indarkeria kasu batek eragindako **larrialdi egoera denean** 112ra eta Atarrabiako Udaltzaingora deituko du beti.
- Hitzarmen honen ondorioz hartutako konpromisoez gain, **gazteengan aldaketak eragiteko lanari ekingo diote, emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeriaren gertaeraren azpian dauden uste eta ideia okerrak deuseztatzeko edota txikiagotzeko.**
- Halaber, **trebakuntza berariazkoa** jasoko dute, familian, kirol eta jolas taldeetan, ikastetxeetan edota bikotean eta sare sozialetan eta interneten bidez ematen ahal den indarkeria fisikoa, psikologikoa, soziala eta sexuala igartzeari eta antzemateari buruz, indarkeria erabili edota pairatu egiten dela ere. Halaber, trebakuntza jasoko dute ere, diren baliabideak biktimei jakinarazteari eta gazteekin genero indarkeriaren gertaera lantzeari buruz; eta finean, protokolo honetan jasotakoarekin harremana duen guztiari buruz.
- **Atarrabiako Gaztelekuak sentsibilizazio kanpainetan parte hartuko du**, “martxoaren 8koan” eta “azaroaren 25ekoan” eta gazteei bereziki zuzendutako aktibitateak antolatuko ditu. Gainera, Udalak zein udalaz gaindiko beste erakunde batzuek egoki irizten dituzten bestelako kanpainetan murgilduko da, lantzen ari garen gaiari buruzkoak; hau da, genero indarkeria eta honi aurre egitea.
- Halaber, Gaztelekuatik **aisialdiko monitoreentzako eta hala eskatzen duten gazteen bestelako taldeentzako trebakuntza ikastaro oro sustatuko dira**, Berdintasun

Arloarekin elkarlanean, hauen gisako gaien inguruan: gazteengan genero indarkeriari aurre egitea eta aukeren, tratua eta ahalbideen berdintasuna. Era berean, lanbide-orientazio ez sexista eta harreman afektibo-sexualak genero ikuspegiarekin bezalako gaiak ere jorratuko dira.

KULTURA ZERBITZUA

Kultura da gizarteak baloreak eskuratzeko eta ondorengo belaunaldiei igortzeko duen moduetako bat. Atarrabian, Kultura Zerbitzuaren ezaugarrietako bat izan da genero ikuspegi txertatu duela antolatzen dituen aktibitateak programatzeko orduan. Protokolo honi begira, Kultura Zerbitzuak bi konpromiso hartu ditu Atarrabiako herritarren aurrean:

- Urtero, “azaroaren 25eko astearen” inguruko egunetan kultur emanaldiak programatzeko ditu (dantza, antzerkia, musika, erakusketak...etab.), euren ardatza emakumeek eta neskatikoez pairatzen duten indarkeriarekiko sentsibilizazioa izanen dena.
- Aitortzea eta begi-bistan paratzea, Atarrabiako kultur esparruan, emakume sortzaileen ekarpenak, talde mailan ahalduzko eta genero-indarkeriari aurre egiteko modu gisa.

ATARRABIako ELKARTE ETA TALDEAK, GIZONEN ETA EMAKUMEEN, ETA NESKATIkoEN ETA MUTIKoEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNAREN ALDE LAN EGITEN DUTENAK.

Emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeriak, gizarteak duen garrantzi handiko azaroa izaki, emakumeen elkarteetan, talde feministen eta bestelako gizarte-eragileen elkarlana eskatzen du, arazoari bere osotasunean heltzeko. Horregatik, gure nahia da mundu guztiak bere ahalegina eta dedikazioa eskaini dezan, indarkeria mota hau errotik erauzteko.

Atarrabiako gizartearen eginkizun aktiboa izateak elkarteak, taldeak eta gizarte-eragileak konprometitu egiten ditu indarkeria mota honen aurkako borrokan. Honengatik, garrantzitsua da Atarrabiako herritar antolatuek, Protokolo honen berri izateaz gain, honen funtzionamenduan ere parte har dezaten. Horretarako, trebakuntza oinarritzkoa jaso behar dute aukera berdintasunen eta genero-indarkeriari aurre egitearen arloetan, eta ezagutu behar dituzte ere, indarkeria kasuren bat ezagutzeari hartu beharreko neurriak..

Oro har, Atarrabian aukera berdintasunen alde lan egiten duten herriko elkarteek eta gizarte-taldeek hartzen dituzten konpromisoak hauek dira:

- **Indarkeria kasuak identifikatzea.**

Emakumeen aurkako indarkeria kasu baten berri izatean, elkarteko kideak, haien familietakoak, gurasoak eta abar tartean badaude, horren berri emanen diete Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoei eta Atarrabiako Udaltzaingoari, haiek izanen baitira neurriak abian jarriko dituztenak. Berehalako arriskua sumatuko bagenu 112ra edota Atarrabiako Udaltzaingora joko genuke.

- **Biktimei udal eta foru erakundeek euren eskura ipini dituzten baliabideen berri emanen zaie.**

Biktimak bere bizitza pertsonalaren eta profesionalaren esparru ezberdinetan laguntza esplizitua izan dezan, jakinaraziko eginen zaio bere egoerara eta errealtatera egokitutako baliabideak daudela, bai biktimarentzat berarentzat zein bere kargura dituen adinez nagusientzat eta adinez txikientzat ere.

- **Biktimak Atarrabian gizarteratzea.**

Aukera-, tratu- eta baliabide-berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeen elkarteek eta gizarte taldeek biktimaren birgizarteratzea lortzen lagunduko dute, ahal denean eta egokia bada, biktimizazio prozesua amaitu ondoren. Kontuan hartu beharko da biktimaren eta bere kargura dituen adinez nagusien eta adinez txikien egoera psikologiko ahula.

Laguntza emozionala emateko lana eginen da, hala eskatzen duten biktima guztientzat. Halaber, laguntza emanen zaie gestioak egiteko orduan prozesuak eta birgizarteratzeak dirauen denboran. Ez dute ezer ordaindu beharko udalaren diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarte eta talde horiek antolatutako trebakuntza ikastaroetan. Horretarako Berdintasun Arloarekin elkarlanean arituko dira.

IKASTETXEAK

Hezkuntzaren esparruan emakumeen aurkako indarkeria kasu ugari eman daitezke, inolako zalantzarik gabe; izan ere, esparru honetan pertsona ugari dago elkarrekintzan eta esparrua oso barneratua dago Atarrabiako gizarte-sarean ere. Hezkuntzaren esparruan bat egiten duten pertsona kopurua oso altua izaki (ikasleak, familiakoak, irakasleak eta

ikastetxeko langileak) baliteke indarkeria kasuak ematea, edota gutxienez, hauen berri izatea.

Protokolo hau izenpetzen duten Atarrabiako Ikastetxeek, oro har, eginkizun hauek izanen dituzte:

- Ikastetxeek **Hezkidetzaren alorreko prestakuntza eta zabalpen jarduerak**, oinarrizko eskubideei eta emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeriari buruzkoak eginen dituzte, bereziki martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren inguruan.
- Emakumeen eta neskatikoen aurkako indarkeriarekin harremana duten gainerako eragileek bezalaxe, ikastetxeek **genero-indarkeria gertakariaren berri eman behar dute ondoko eskemari jarraiki**, laguntzeko baliabideak era koordinatuan abiarazteko.
 - a) **Genero-indarkeria egoeraren berri izandakoan:** ikastetxeko zuzendaritzari berehala jakinarazi eta 012ra edo Atarrabiako Udaltzaingora deitu, kasuaren larritasuna nolakoa den kontuan hartuta.
 - b) **Ikasleek eragindako indarkeria:** informazioa jaso, azterketa orientatzailearekin eta premiako neurriak hartu, banan-banan egindako elkarrizketak eta familiekin egindakoak, esku-hartze plana, txostena eta neurri zuzentzaileen proposamena, inplikaturako familiei informazioa ematea, jarraipena eta ebaluazioa.
 - c) **Ikastetxeko langileek eragindako indarkeria:** zuzendaritzari eta hezkuntza-ikuskaritzari jakinarazi.
 - d) **Senitarteko batek eragindako indarkeria:** Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoei, agintari judizialei eta fiskaltzari eta hezkuntza-ikuskaritzari jakinarazi.
 - e) **Emakume langileen edota amen aurkako indarkeria:** Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoei, Berdintasun Arloari eta agintari judizialei eta fiskaltzari jakinarazi.

AMAIERA

Atarrabian, 2013ko urriaren 31(e)an.

